

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA - AKELARRE

Nahia Lopez, Unai Garcia, Ixone Reyes eta Marta Estevez

Gure proiektuak **AKELARRE** izena du euskal mitologiako sorginei erreferentzia eginez. Aplikazio seguru bat da emakumeengatik sortua eta emakumeentzat bideratuta, edozein adin-tartekoak izanik. Diputazioak bere gain hartuko du eta izen-ematea doakoa izango da.

Honetan, edozein emakumek jarduera, ekintza edo erronka bat proposatzeko aukera izango du non aplikazioan izena eman duten beste emakumeek izena eman dezaketen. Horrela, emakume-gune seguruak sortuko dira edozein jarduera mota gauzatzeko eta gure arteko ahalduntzea sustatzeko. Adibidez, gauetan etxera bueltatzeko taldeak elkartzea, kirol jarduera ludikoak edota talde terapia informalak.

